

Bertso kronika

Saio atsegina Tolosan

IÑAKI AGIRRESAROBÉ / TOLOSA

Beotibarren ohiz biltzen den baino gutxiago, baina 700 bat entzule bildu ziren. Sorpresa tiki bat ere aurkeztu zuen gaijartzailak: Asteasun Txirrita eta Pello Errotaren disko zahar bat aurkitu denez, haren zatitxo bat. Nahiko liluragarria suertatu zen baina grabaketa egoera onean ez zegoenez, ez zen oso ongi ulertzen. Bitxikeria atsegin horren ondoren, ohizko saio formal hasi zen.

Zortzikoteari mugikortasuna ematea erraza ez zenez, gaijartzailak nahiko ondo egokiturik lan bitxiak edo ezohizko batzuk ere aurkeztu zituen. Gaiekin asmatzea gauza zaila denez gaur egun, laukotea lehenengoz jarri zuen: «Aszensorea erdi bidean gelditu da, lau protagonista barruan: Lazkano, hirugarren pisuko etxeokandrea; Murua Jehovaharen lekukoa; Zeberio butaneroa; eta Sarasua lore sortarekin andregaiarengana zihoan gaztea. Astelehenera arte ez datoz konpontzera». Girotzeko bertso bitxi eta barregari batzuk entzun ziren.

Iñaki Murua:
Ez genduen nahi baina
Jehovak entzungor,
ta gure aszensorea
zapla! gelditu hor.
Porta zaitzete zuzen
denok izan jator,
munduñ bukaera
berhala dator. (bis)

Imanol Lazkano
Ez dituk alperrikan
presako jardunak,
hemen aurrerapenak
dira errudunak.
Hemendikan somatzen
ditut nik lurrunak,
akabo eguadiko
nere babarrunak. (bis)

Jon Sarasua:
Jehovako honekin
hau da gorabehera,
mundua joango da bai
oraindik aurrera.
Baina zu ixilkan
egote ez bazera
laster iritsiko da
zure bukaera. (bis)



Bertso gosea asetu ahal izan zuten Tolosako entzuleek. I. AGIRRESAROBÉ

Xabier Zeberio:
Laurok gelditu gera
aszensore baten,
aberiatu da ta
ezin gara irten.
Jehovak ez badigu
milagrorik egiten,
butanorik ez dago
astelehena arten. (bis)

Launakako lanetan ondo murgildu ziren batzuek beste saioan. Agirre arrazoi zuzen eta erantzun azkarrekin ibili zen. Bat-bateko-

tasuna eta ahozketasuna bere barnean daramala ederki erakutsiz. Gai batean erantzun ederrak bota zizkion Munduateri: «Mundua te gazteak, maitemindurik, andregaiari oparia egin nahi dio, baina ez daki zer erregalatu. Agirrerengana aholku eske joan da».

Joxe Agirre:

Aldamenetik jotzen hasi zait uste ez nuen orkestra, ezjakina naiz baina nik orain egin nahi diot protesta.

Ondo landutako gaiak

I. A. / TOLOSA

■ Bertso eskolakoek denetako gaiak jarri zituzten, bai gaurkotasuna zutenak (Aita Santuaren eta Arriortuaren protagonismoa), bai barregari suerta zitezkeenak, bai serioak eta bai bitxiak. Gauza berriak lantzen ere saiatu ziren, hau da, inkestarena, eta azkenean ezohizko agurra abestea agindu zieten bertsolariei, hots, albokoak kantatuko zukeen agurra.

Bestalde, puntuka Agirre eta Lazkano gai librean etxean hitz

egiten ariko balira bezala aritu ziren: azkar, zorrotz eta umoretsu. Gehien txaloturiko saioa bilakatu zen, eta jendeak bi helduen esperientzia eta etorria eskertu zuen.

Saioak beharaldia sumatu zuen, baina ustekabeen puntukako saioak igo egin zuen.

Zortzikotearekin mugikortasuna eta saioak berea ematea ez da erraza izaten, hasiera batean pentsaturik, baina ordu t'erdiko saio batekin entzuleak ase eta bere puntuan uzteko parada izan zuten bertsolariek.

Fitxa teknikoa

Bertsolariak: Sebastian Lizaso, Iñaki Murua, Imanol Lazkano, Joxe Agirre, Joxe Munduate, Jesus Mari Irazu, Jon Sarasua eta Xabier Zeberio.

Gaijartzaila: Tolosako bertso eskola.

Aurkezlea: Felix Irazustabarrena.

Herria: Tolosa.

Lekua: Beotibar pilotalekua.
Eguna: ekainak 19, larunbata.

Ordua: 23.00.

Antolatzailea: Euskal Herriko Bertsolari Elkarte (EH-BE), 'Ari naizela, ari naizela...' kanpainaren barruan.

Doinuak: Sei saio zortziko txikian eta beste horrenbeste zortziko handian.

Gaurko gaztea izatekotan hau oso bizkorra ez da: «Neska bati zer erregalatu?» aitona bati galdezka.

Jendearen gustagarri suertatu zen beste une bat, laukote baten zatitxo jarritako lan batekin suertatu zen. Gaiak gaurkotasunik badu, eta oso era originalean landu zuen aurkezleak. Inkesta bat egin zuten zezenketari buruz Lazkano, Agirre, Zeberio eta Munduateri. Hauen erantzuna bertsotan entzun ondoren, honako debatean jarri zituen: Lizaso, zezenketa zalea; Murua, animalien babeserako taldekide; Sarasua, zezenketen gerente antolatzailea; Irazu koadrilen batzordekoa. Aipagarria Sarasuak jendearen gogoz kontrako paperean egin zuen lana, oso kontzentratu egin zuen jendearen barneraino helduz.

Jon Sarasua:

Hauteskundeak ere zeharka arrazoi ematen du maiz, ta Donostian zezen korridak ikusiko dira garaiz. Nahiz eta hemen ekologistak izan niganako bekaitz, Don Odon eta Ordoñezekin (bis) oso ondo konpontzen naiz.

ASTEKO
zipristinak

■ **Itsasondo:** Mikel Mendizabal, Euzkitze eta Imanol Lazkanok oso giro oneko bertso afaria izan zuten iragan ostiralean, Kultur Astearen amaiera gisa. Bertakoa izanik, Mikel Mendizabalek ongi zekien nori zer esan, eta bai ederki erakutsi ere bere bi lagunak. Elkarri ondo erantzunez eta bizi-bizi, saio bikaina egin zuten bertsolariek.

■ **Olaberria:** Hego haizea eta gau giro epel eta berezia izan zuen Jon Sarasua, Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Anjel Mari Peñagarikano, Jesus Mari Irazu eta Maddalen Lujanbiok ostiral gauean egin zuten bertso saioak. Entzule ugari bildu zen bertsolarien aurreko zelaian ezarritako aulkietan. Giro paregabe horretan, bertsotan ere ondo asmatu zuten bertsolariek, hasieran batez ere, gero —hego haizearen eraginez behar bada— pixka bat desmadratu egin baziren ere. Entzuleak oso gustura geratu ziren.

■ **Olakua (Oñati):** Anjel Mari Peñagarikano eta Andoni Egañak alaitu zituzten auzoko jaiak larunbat eguerdiz.

■ **Iruñea:** Manolo Arozena, Iñaki Murua eta Sebastian Lizasok alaitu zuten, larunbat eguerdian, Amaiur udal ikastolako antolatutako herri bazkaria.

■ **Lesaka:** Euzkitze, Andoni Egaña, Joxe Lizaso, Jose Luis Gorrotxategi, Manolo Arozena eta Bittor Elizagoienek hartu zuten parte larunbat gauean Maurizio Mitxelena, Josetxo Iantzi, Luis Olaetxea eta Dionisio Mujikaren omenez egin zen saioan. Ongi prestatu zituen Iñaki Perurena harrijasotzaileak bertsolariei eman beharreko gaiak. Ez zen jende asko ere bildu—400 lagun inguru—baina itxurazko saioa izan zen. Ohizkoa denez, Joxe Lizasok bere erako ateraldi bitxiak egin zituen.

■ **Usurbil:** Xabier Amuriza eta Mikel Mendizabalek herriko kasko zaharren berri tapen lanen amaierako ospakizunetan parte hartu zuten igande eguerdian, bertsoak kantatuz. Kasko zaharra erabat berritu eta dotoretuta geratu da, eta horixe izan zuten aipagai bertso saioan ere.

■ **Errigoiti:** Librean hasi zirenean, herrikoa den eta egun espetxeratu dagoen Txiplas bertsolaria gogoratu zuten Jon Enbeita, Jon Sarasua, Unai Iturriaga, Aritz Lopategi eta Juan Mari Areitiok igande eguerdian egin zuten saioan. Ondoren, Jon Mikel Omagojeaskoa izan zuten gaijartzailak. Jai giroko igande eguerdiko saioa izateko, nahikoa etekin ateratu zuten bertsolariek.

■ **Amailo (Markina):** Auzoko jaiak kolorea eta bizitasuna eman zieten Xabier Zeberio, Gregorio Larrañaga 'Mañukorta' eta Andoni Egañak, igande eguerdi eta arratsaldean egin dako bertso saioekin. Gustura kantatu zuten hiru bertsolariok.

■ **Laudio:** Rikardo Gonzalez de Durana, Zigor Enbeita, Jon Enbeita, Iratxe Ibarra, Manolo Arozena eta Jon Sarasuak kantatu zuten, igande arratsaldean, Araba Euskarazeko ekitaldien barruan. Sarrera librean egin bazuten ere, ondoren Serapio Lopez izan zuten gaijartzailak. Jende asko bildu zen bertsolariak entzutea, gazte jendea batez ere, eta, gainera, arreta handiz jarraitu zuten entzuleek bertsolarien lana.

IRAGARKI MERKEAK (943) 46 90 22



HERRI KULTUR ETXEA
EGUNPASAK EGITEKO
EGOKIENA

JATETXEA: Primerakoa
SUKALDEA: Goxorik bada inon
BAZKARIA: 750 pta.tik gora
BAZKALONDIA: Kartetan joka daiteke
IBILALDIAK: Pasealeku eta mendi erosoak
ZERBITZUA: Paregabek
GIROA: Euskalduna eta familiakoa
Tolosa 7 km.ra
Tf.: 943-67 27 59
GAZTELU
Adinekoentzat ezin hobea

UDA IKASTAROA
ADIERAZPEN PLASTIKOA
ROSA VALVERDEREN
ESKUTIK
HAUR ETA HELDUAK
•MARGOLARITZA
•MARRAZKI
•KERAMIKA
PRIM KALEA, 43 ETLO
TFNOA: 45 90 32

IRLANDA
DUBLIN BELFAST
● Ingeles ikastaro trinkoak
● Hegaldi zuzenak Iruñea eta Bilbotik
● Egonaldiak familietan edo Unibertsitate Egoitzetan
SHANNON
Iturruma, 43, bis
Plantarlea (etxe berdeak) IRUÑEA
SHANNON Tel.: 948-27 90 36 / 17 48 38

MOZOLOAK
TXARANGA
(943) 39 40 22

31 x 15 mm

EGUN BAT 1.040 pta/42l.
ASTEBETE 5.100 pta/208l.
BI ASTE 9.000 pta/360l.

ALTZA (943) 39 43 77
MONPAS (943) 27 27 11
ORTZADAR (943) 53 66 57
SARA R. ARREGI (943) 46 46 55
BARNETEGIA / euskaltegiak

